AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1000

52/2017 EBAZPENA, otsailaren 13koa, Uribe ESIko zuzendari gerentearena. Honen bidez Gotzone Barbarias Salinas andrea aldi baterako, lau urterako eta luzatzeko aukerarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru izendatu da, espezialitate honetan: oftalmologia.

Irailaren 9ko 131/2016 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru lanpostua lehiaketa bidez betetzeko, espezialitate honetan: oftalmologia.

Epaimahai kalifikatzaileak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Gotzone Barbarias Salinas andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru, espezialitate honetan: oftalmologia.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorriz, zera

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gotzone Barbarias Salinas andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribe ESIko atal sanitarioko buru izendatzea aldi baterako, espezialitate honetan: oftalmologia.

Bigarrena.– Izendapena aldi baterakoa izango da, lau urteko indarraldia izango du luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta ondorioetarako data hau izango da: 2017ko martxoaren 6a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, luzapena onartzen ez bada, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat etorriz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik, aldez aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren 6. atalean aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Barakaldo Sestao ESIri jakinaraztea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Getxo, 2017ko otsailaren 13a.

Uribe ESIko zuzendari gerentea,
M.ª LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.